

**Graduado o Graduada en Historia y Patrimonio**  
*Historia eta Ondarean Graduatua*

**Trabajo Fin de Grado**  
*Gradu Bukaerako Lana*

***M8a performance-aren  
ikuspegitik: Iruñeko kasua***

**Ikaslea: Maialen Fernández Durá**

Tutorea: Igor Saenz Abarzuza

Saila: Giza eta Gizarte  
Zientziak

**Arloa: Historia eta  
Ikerketa  
Artistikoak**

**Maiatza, 2023**

## Resumen

Las manifestaciones del 8 de marzo son una de las principales formas colectivas de lucha dentro del feminismo. Unen a mujeres de diferentes edades, etnias, religiones e ideologías para una causa común, la lucha por la igualdad y por los derechos de las mujeres. Como en muchas otras ciudades, Iruña ha construido un feminismo con características propias que lo diferencian de las acciones y discursos de otros lugares. En las últimas décadas, una serie de hitos han marcado notablemente a toda la sociedad, unos hitos que han tenido repercusión en la forma de entender, afrontar y organizar el feminismo. Los elementos performativos están muy presentes en las protestas del 8M, de forma directa o indirecta, mediante unos códigos propios, identificativos y diferenciadores. Los acontecimientos sociales ha fomentado cambios que han influido en la materialización de los elementos de la performance en las concentraciones del 8 de marzo. Así, colores, lemas, símbolos, la actitud de los y las manifestantes, actividades, etc. son características de la performance que cada año se dan en las manifestaciones del 8M. El objetivo de este trabajo es ver cómo evolucionan y cambian estos elementos teniendo en cuenta los hitos sucedidos en la ciudad de Iruña.

*Palabras clave:* 8M; performance; Iruña; manifestación; feminismo.

## Abstract

March 8th demonstrations are one of the main collective forms of struggle within feminism. They unite women of different ages, ethnicities, religions and ideologies for a common cause, to fight for equality and women's rights. As in many other cities, Iruña has built a feminism with its own characteristics that differentiate it from the actions and discourses of other places. In recent decades, a series of milestones have marked society as a whole, landmarks that have had repercussions on the way feminism is understood, confronted and organized. The artistic discipline of performance is a very present element in the 8M demonstrations, directly or indirectly, through the application of its characteristics. The gravity of these milestones has brought about changes that have influenced the materialization of the elements of performance in the March 8th demonstrations. Colours, slogans, symbols, attitude of the demonstrators, activities, etc. are characteristics of the performance that happen every year in the 8M protest. The aim of this work is to see how these elements evolve and change taking into account the milestones that took place in the city of Iruña.

*Keywords:* 8M, performance, Iruña, demonstration, feminism.

## Laburpena

Martxoaren 8ko manifestazioak feminismoaren barruan borrokatzeko modu kolektibo nagusietako bat dira. Adin, etnia, erlijio eta ideologia desberdinetako emakumeak batzen dituzte kausa komun baterako, berdintasunaren alde eta emakumeen eskubideen alde borrokatzeko. Beste hiri askotan bezala, Iruñeak berezko ezaugarriak dituen feminismo bat eraiki du, beste leku batzuetako ekintzetatik eta diskurtsoetatik bereizten duena. Azken hamarkadetan, mugarri batzuek nabarmen markatu dute gizarte osoa, eta mugarri horiek eragina izan dute feminismoa ulertzeko, aurre egiteko eta antolatzeke moduan. *Performance*-aren diziplina artistikoa oso presente dago M8ko adierazpenetan, zuzenean edo zeharka, haren bereizgarriak aplikatuz. Mugarri horien larritasunak eragin ditu martxoaren 8ko manifestaldietan *performance*-aren elementuak gauzatzean eragina izan duten aldaketak. Koloreak, leloak, sinboloak, manifestarien jarrera, jarduerak eta abar dira M8ko manifestazioetan urtero egiten den *performance*-aren ezaugarriak. Lan honen helburua elementu hauek nola eboluzionatzen eta aldatzen duten ikustea da, Iruñeko hirian jazotako mugarriak kontuan hartuta.

*Gako-hitzak:* M8, *performance*, Iruña, manifestazioa, feminismoa.

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	3
<b>1. MARKO TEORIKOA</b> .....	4
<b>1.1. MARTXOAK 8: EMAKUME LANGILEAREN EGUNA</b> .....	4
<b>1. 2. PERFORMANCE-AREN ERABILERA GENERO ADIERAZPENETAN</b> .....	10
<b>2. M8A IRUÑEAN: IKUSPEGI ARTISTIKOA ETA PARTAIDEEN TESTIGANTZA</b> .....	12
<b>2.1. PERFORMANCE-AREN EZAUGARRIAK MARTXOAK 8KO MANIFESTAZIOETAN</b> .....	12
<b>2.2 IRUÑEKO ELEMENTU BEREIZGARRIAK</b> .....	16
<b>3. ELKARRIZKETAK</b> .....	17
<b>4. ONDORIOAK</b> .....	24
<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	27
<b>ERANSKINAK</b> .....	29

## SARRERA

Las manifestaciones del 8 de marzo son una de las principales formas colectivas de lucha dentro del feminismo. Unen de manera muy especial a mujeres de diferentes edades, etnias, religiones e ideologías para una causa común, para luchar por la igualdad y por los derechos de las mujeres. Varios acontecimientos, que venían ocurriendo desde el siglo XIX, son los primeros pasos para que en 1975 la ONU establezca el 8 de marzo como Día Internacional de la Mujer. En España, y también en Navarra, no fue hasta la muerte de Franco, en el inicio de la transición, cuando empezaron a manifestarse todos los años en el 8M. En la Comunidad Foral de Navarra, fue en 1977 cuando tuvo lugar la primera jornada de lucha y reivindicación. La capital, Iruña, ha sido el lugar en el que las mujeres navarras han realizado su liberación y su lucha por la igualdad, es aquí donde se ha ido articulando el movimiento feminista, que hoy sigue siendo un pilar fundamental en la sociedad navarra.

Iruña es otra ciudad más donde el feminismo ha avanzado en la última década y se ha convertido en un movimiento más dinámico, fuerte y reivindicativo. Como en muchas otras ciudades, Iruña ha construido un feminismo con características propias que lo diferencian de las acciones y discursos de otros países, pero también de otras ciudades españolas. En las últimas décadas, la capital navarra vive una serie de hitos que han marcado notablemente a toda la sociedad y en los que el feminismo ha dado una respuesta clara. El asesinato de Nagore Laffage en 2008 o la violación grupal de La Manada en 2016, entre otros, han supuesto puntos de inflexión para el feminismo. Asimismo, estos hechos han supuesto un cambio de conciencia y actitud en buena parte de la sociedad. Dentro de las manifestaciones del 8 de marzo, la performance es una forma de arte absolutamente presente sin ninguna duda. Directamente, como vemos en diversos ejemplos en Sudamérica donde es muy común, o indirectamente, aplicando algunas de sus características. La performance ha estado ligada al feminismo desde sus inicios, en los años setenta. Hoy en día es fácil ver sus características en diferentes expresiones de género.

El objetivo de este trabajo no es analizar los discursos políticos que puedan tener los colectivos feministas que conforman el Movimiento Feminista en Navarra o las respuestas políticas que se han dado a raíz de los sucesos ocurridos en Iruña. La gravedad de los hitos ha fomentado cambios que han influido en la materialización de los elementos de la performance en las manifestaciones del 8 de marzo. Colores, lemas, símbolos, actitud de los manifestantes, actividades, etc. son características de la performance que cada año aparecen en las protestas del 8M. El objetivo de este trabajo es ver cómo evolucionan y cambian estos elementos teniendo en cuenta los hitos sucedidos en la ciudad de Iruña. También se tendrán en cuenta los acontecimientos globales que de igual forma han supuesto un cambio en la capital Navarra, como la huelga general del 8 de marzo de 2018 o la pandemia del COVID.

Con este trabajo he querido profundizar en uno de mis mayores intereses, el feminismo. Observar, describir, analizar y debatir sobre los elementos artísticos del 8M ha supuesto para mí entender la lucha feminista desde un punto de vista más artístico. He podido entender que el uso de la performance es un doble proceso; las feministas utilizan esta disciplina para comunicar mejor su mensaje y hacer ver su lucha, pero al mismo tiempo la performance es también un reflejo de lo que ocurre en la sociedad. Igualmente, el centrarme en Iruña me ha permitido ver y entender desde otro punto de vista las concentraciones del 8M en las que he participado durante años y de esta manera conocer detalles y símbolos a los que hasta entonces no había prestado atención. Además, el hecho de poder realizar entrevistas a las mujeres protagonistas del 8 de marzo, de diferentes edades y vivencias, me ha hecho comprender de una manera mucho más global y enriquecedora, no sólo las expresiones artísticas, sino también el feminismo.

## **1. MARKO TEORIKOA**

### **1.1. MARTXOAK 8: EMAKUME LANGILEAREN EGUNA**

Emakumearen Nazioarteko Eguna munduko herrialde desberdinetan ospatzen den eguna da. Nazio Batuen Erakundeak (UN, 2023) esaten duen moduan<sup>1</sup>, emakumeak banatzen dituzten ezberdintasun etniko, linguistiko, kultural, ekonomiko eta politikoen, baita aldentzen dituzten muga nazionalak ere gainditu egiten dira egun honetan. Horrela, martxoaren 8an egiten diren ekimenak berdintasunaren, justiziaren, bakearen eta garapenaren alde gutxienez laurogeita hamar urteko borrokaren tradizioa ikusarazi egiten dute. Emakumearen Nazioarteko Egunak bere sustraiak emakume “arruntaren” historian ditu, eta bertan ikus dezakegu abiapuntua. Borroka anitz horretatik, gizartean gizonetikiko berdintasunaren alde borrokatzeko eguna izatera bilakatu da.

Data erabakitzeke aurrekari historiko bat baino gehiago dago, eta ez dago argi zein izan zen erabakigarriena. Baina Huguet-ek (2023a) aipatzen duen bezala:

Es cierto que no resulta sencillo fijar un solo acontecimiento como el motivo por el que se escogió el 8 de marzo, por ello se ha de entender como una lucha en conjunto, un esfuerzo prolongado en el tiempo. Así, se entiende como cada generación ha ido heredando el deber de luchar por sus derechos y por los de las generaciones venideras. [Egia da ez dela erraza martxoaren 8a aukeratzeko arrazoi gisa gertaera bakar bat finkatzea; horregatik, borroka orokor gisa ulertu behar da, denboran zehar egindako ahalegin luze gisa. Horrela, belaunaldi

---

<sup>1</sup> Nazio Batuen Erakundeak. Día Internacional de la Mujer, 8 de marzo. Hemendik berreskuratua: <https://www.un.org/es/observances/womens-day/background> (azken kontsulta: 2023ko apirilaren 18a).

bakoitzak bere eskubideen eta datozen belaunaldien eskubideen alde borrokatzeko betebeharra heredatu duela ulertzen da].

Amerikako Estatu Batuetako (AEB) lehen mugarría, 1848an eman zen. Bi emakumeei esklabotzaren aurkako konbentzio batean hitza ukatu zieten. Ondorioz suminduta, Elizabeth Cady Stanton eta Lucretia Mott estatubatuarrek, ehunka emakume bildu zituzten AEBko emakumeen eskubideei buruzko lehen konbentzioan. Testuinguru honetan eskubide zibil, sozial, politiko eta erlijiosoak eskatu zituzten emakumeentzat eta egoera hau mugimenduaren hasieratzat jotzen da. 1875eko martxoaren 8an, New York-eko ehungintza-fabrika bateko ehunka emakumek manifestatu ziren eta beren lankideekiko soldata-desberdintasunagatik protesta egin zuten. Kexak, poliziaren errepresio bortitza eragin zuten, eta 120 langile hil zituzten. Sarraskiaren ondoren, historiako lehen emakumeen sindikatua sortu zen, eta ehungintzan emakumeen protesta eta greba oldea piztu egin zen. Mugarría garrantzitsuenetako bat 1908an iritsi zen, “*Pan y Rosas*” lelopean 15.000 emakume atera ziren kalera lan baldintza latzengatik protesta egiteko<sup>2</sup>.

AEBko Alderdi Sozialistak antolatua 1909ko otsailaren 28an ospatu zen Emakumearen lehen Egun Nazionala, Estatu Batuetan. Amerikako Alderdi Sozialistak 1908an New York-en egindako jantzigintzako langileen grebaren omenez izendatu zuen egun hori. 1913. urtera arte otsailaren azken igandean ospatu egiten zen Emakumearen Egun Nazionala herrialde horretan. Europari dagokionez, Kopenhage-n (Danimarka), Emakume Sozialisten Nazioarteko Bigarren Konferentzian bildutako 17 herrialdetako ehunka partaidek (lehenengoa 1907an egin zen) urtero emakumearen jardunaldi bat antolatzea erabaki egin zuten. Konferentzia horren helburua, emakumeen eskubideen berdintasuna sustatzea izan zen, eta hor proposatu eta onartu zen martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna ospatzea, Clara Zetkin ekintzaile alemaniar nabarmenaren eskariz (Corral, 2020).

Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizunean eragin handiena izan zuen gertaera Lanaren Nazioarko Erakundearen (ILO) ustetan Triangle Shirtwaist fabrikako sutea izan zen. New York-eko hirian 1911ko martxoaren 25ean sute bat gertatu zen Shirtwaist Triangle lantegian eta barnean 146 emakume hil egin zituen. Langile hauen gehiengoa Ekialdeko eta Hegoaldeko Europako emakume etorkin gazteak ziren (2011).

Emakume gazte hauei *shirtwaists* deitzen zitzairen, garai horretan *shirtwaists* emakumeen alkandorei horrela deitzen zitzaielako. 20 minututan erre egin ziren edo berotik eta sugarretatik ihes egiteko ahalegin etsian, fabrikako bederatzigarren solairuko leihoetatik salto egitean hil ziren. Giltzaz

---

<sup>2</sup> Ondacero.es. (2019). Día internacional de la mujer, ¿Cuál es el origen del 8M y por qué se celebra hoy? Hemendik berreskuratua: <https://n9.cl/qrg1r> (azken kontsulta: 2023ko apirilaren 18a).

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

itxitako ateen atzean harrapatuta gelditu ziren suhiltzaileen eskaileretatik kanpo. Baina ez hori bakarrik, zegoen larrialdiko eskailera bakarra erori egin zen, izututa ihes egiten saiatzen ari ziren emakumeen pisupean (ILO, 2011).

Urtebete lehenago, arrakastarik gabeko greba bat antolatu zen ehungintzaren sektore osoan, Triangleko lantegiko langileak ere greban parte hartu zuten. Ekimena sindikatuen onespena izan zuen eta soldata eta lan-baldintza hobek lortzeko ahaleaginean antolatu zen. Baina Triangleko jabeek ez zituzten onartu (ILO, 2011).

Gaur egun oraindik ere suteak New York-eko Triangle fabrikari izan duen eragina nabari da mundu osoan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak esaten duen moduan (2011):

En la actualidad, el impacto del incendio en la fábrica Triangle aún se siente en todo el mundo. El mismo dotó de importancia a la celebración del primer Día Internacional de la Mujer y ejerció una marcada influencia sobre los ideales fundadores de la OIT. Hoy en día sigue inspirando a la Organización en la búsqueda de la justicia social y de mejores condiciones de trabajo, en todo lugar y momento donde esto sea posible. [Gaur egun, Triangle fabrikako sutearen eragina oraindik mundu osoan sentitzen da. Egun horrek garrantzi handia eman zion Emakumearen Nazioarteko Egunari, eta eragin nabarmena izan zuen LANERen sortzaileengan. Gaur egun, Erakundea inspiratzen jarraitzen du justizia soziala eta lan-baldintza hobek bilatzeko, hori posible den leku eta une osoan].

Egunaren hautaketa I. Mundu Gerraren eta Errusiako Iraultzaren harira egin zen. Errusiako 1917ko otsailaren 23a, Europako beste herrialdeetako martxoaren 8ari dagokio, herrialdeak ez zuen oraindik egutegi gregorianoa hartu eta (NBE, 2023)<sup>3</sup>. Egun horretan, Errusiako Tsarra erori ondoren eta Errusiar Iraultzaren ondorengo matxinada mugimenduen testuinguruan, bitarteko gobernuak emakumeen botoa onartu egin zuen. Ondorioz, jai eguna bihurtu zen herrialde osoan (2019)<sup>4</sup>.

Bigarren Mundu Gerraren bukaera egun honen nazioarteko hedapena suposatu zuen. Azkenik, 1975ean, Emakumearen Nazioarteko Urtearekin batera, Nazio Batuek Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu zuten lehen aldiz, martxoaren 8an (2023)<sup>5</sup>.

---

<sup>3</sup> Nazio Batuen Erakundea. Día Internacional de la Mujer, 8 de marzo. Hemendik berreskuratua: <https://www.un.org/es/observances/womens-day/background> (azken kontsulta: 2023ko apirilaren 18a).

<sup>4</sup> Ondacero.es. (2019). Día internacional de la mujer, ¿Cuál es el origen del 8M y por qué se celebra hoy? Hemendik berreskuratua: <https://n9.cl/qrg1r> (azken kontsulta: 2023ko apirilaren 18a).

<sup>5</sup> Nazio Batuen Erakundea. Día Internacional de la Mujer, 8 de marzo. Hemendik berreskuratua: <https://www.un.org/es/observances/womens-day/background> (azken kontsulta: 2023ko apirilaren 18a).

### **1.1.1. MARTXOAK 8 IRUÑERRIAN**

Espanian zaila da mugimendu feministaren hastapenak denboran kokatzea, baina esan daiteke XX. mendearen hasieran hasten dela antolatzen. Mugimendu honek, hasiera-hasieratik, feminismo ingelesetik edo iparramerikarretik bereizten zuten ezaugarri bereizgarriak izan zituen. Espainian 1931n eman zitzaion botoa emakumeari, baita dibortzioaren legea eta ezkontza zibila ere onartu ziren. Baina ezin da esan mugimendu feminista iraultzaile baten emaitza zenik, ez baitzuen Espainiako emakume gehienek babesik izan, ezta aktibismo militante masiborik ere, beste herrialde batzuetan bezala. Era berean, Espainiako Gerra Zibilak emakumeentzat lortutako eskubideak irauli egin zituen. Izan ere, frankismoaren ideologiaren oinarrian emakumeak ama eta emazte gisa mantentzearen ezaugarri tradizionalen goraiapamena zegoen, emakumea etxeko eremuan giltzapetuz (Pérez, 2002, 5. or.).

Beraz, Espainian feminismoa ez da demokraziarekin batera sortzen den fenomeno bat, XX. mendean garatzen joan dena baizik. Berdintasunaren aldeko lehen aurrera-pausua 1978ko Konstituzioak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ideia ezartzean eman zen. 1975. urtean, Nazio Batuen Erakundeak Emakumearen Nazioarteko Urtea aldarrikatu zuenean, Espainian hainbat talde feministaren agerpena gertatu zen. Talde horiek hainbat jardunaldi antolatu zituzten, eta horien atzean koordinatzaile feministen ezarpena eman zen, lehenengoetako bat Madrilgo Emakumeen Antolaketa eta Taldeen Plataforma izan zen. Horri guztiari esker, 1977an kalean eta lehenengo aldiz modu bateratuan ospatu zen martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Jardunaldia emakume langilearen egoera eta emakumeen berariazko delitu gisa tipifikatutako amnistiaren berri emateko erabili zen. Kontrazepzioagatik, abortuagatik, prostituzioagatik eta adulterioagatik preso zeuden emakumeak askatzeko protesta egin zuten (Pérez, 2002, 7. or.).

Iruñari dagokionez, emakumeak lehen aldiz antolatutako greba 1903. urtean eman zen. Calzados López enpresako 60 langileetatik 40 emakumeek fabrika gelditu zuten, soldata igoera eskatuz, eta grebak ikusmin handia sortu zuen haien ausardiagatik. Hamarkada batzuk geroago, Iruñeko emakumeek haien indarra agerian utzi zuten, 1951n frankismoaren lehen greba orokor handiaren buru izan zirelako. Greba hau zabalguneko merkatuan hasi egin zen, bertan 500 emakumeek arrautzen eta olioaren prezioengatik protesta egin zuten. Merkatutik hasita manifestazio bat antolatu zuten Gobernu Zibileraino. Ekimenaren garrantzia handituz joan zen langileak grebara gehitu egin zirenean eta lau eguneko greba orokor batean bukatu zuen protesta. Gainera, Nafarroko beste herrietara hedatu egin zen (Lesmes, 2018).



Echeverria-k, bere lanean, *El Movimiento feminista en Navarra desde 1980 hasta la actualidad* (2014) azaltzen duen moduan, martxoaren 8ko lehen ospakizunari dagokionez Nafarroan, Espainian bezala, 1977. urtean eman zen. Iruñean Emakume Langilearen Egunaren lehen ospakizuna Emakumearen Elkarte Demokratikoak (ADM), Emakume Askatasunaren Mugimenduak (EAM) eta Txantreako Emakumearen Batzordeak eta Langile Batzordeak (CCOO) antolatu zuten. Deialdia planfletoen bidez egin zuten, Emakume langilearen borrokaren alde lelopean. Lehenbiziko ekitaldi honetan aldarrikapenak lan eta gizarterekin lotuta zeuden; eskubide berdintasuna eskatzen zuten soldatapeko lanaren, hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren alorretan. Gainera, emakume langileentzako laguntza baliabideak aldarrikatzen zituzten, hala nola, haurtzaindegiak, jantokiak etab. Lehen manifestaldi honetan feminismoak historikoki eskatzen zituen eskubideak aldarrikatu egin ziren ere. Hauek amatasunean, sexualitate askatasunean, abortuan eta sexu-erasoen salaketan oinarritzen ziren.

Hurrengo hiru urtetako deialdietan berriz ere indar politikoak, gizarte-mugimenduak eta sindikatuetak emakumeak izan ziren martxoaren 8ko ekitaldiaz arduratu zirenak. Baina 1980. urtean aldaketa nabari bat ematen da, urte honetan Nafarroako Koordinadora Feministak antolatu egiten du, alderdi-politiko eta sindikatu gehienenen babespean (PCE Eta ELA bakarrik huts egin zuten). Urte horretan Langile Estutua egiten ari zen, hori dela eta, aldarrikapen nagusia lan esparruarekin lotuta egon zen berriz ere. Emakumeen lan-egoera eta langabezia tasa altuak salatu egin zituzten 1980ean. Lanarekin lotutako aldarrikapenez gain, bortxaketak eta sexu-erasoak salatu ziren, emakumeak sexu-objektutzat hartzea kritikatu eta berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak eskatuz (Echeverria, 2014).

1980. hamarkadatik aurrera martxoaren 8ko jardunaldietan hainbat aldaketa ematen dira, Mugimendu Feministak proposatzen dituen leloak sistema patriarkalaren kritika egiten dute eta aldi berean lanaren inguruko aldarrikapenak garrantzia izaten jarraitzen dute. 1984. urtean ekitaldian emakumeen lan egoerari buruzko datuak zabaldu egin ziren, estatistika hauetan ikusgarria zen emakumeek jasaten zuten diskriminazioa. Hurrengo urtean, 1985ean, Nafarroako Koordinadora Feministak egunkari bat argitaratu zuen, bertan 1975-1985 hamarkadan bizitako borroka feminista berrikusi egiten zen. Urte honetan ere aldarrikapenak ildo beretik jarraitu zuten, baina garrantzi nabarmentzeko asmoz Koordinadorak argitaratutako egunkarian 1982 eta 1985 urteen arteko indarkeriaz erahildako emakumeen datuak aurkeztu zituzten (Echeverria, 2014).

Gainera, egunkaria diskurtsoaren norabide aldaketa ikusteko oso baliagarria da. Aurreko urteetan argitaratutako komunikatuekin konparatzen badugu diskurtso feministaren garapena

agerikoa da. Aldarrikapenak bereizgarriak bilakatzen dira, hala nola, emakumeen aurkako indarkeria espezifiko nabarmenduz, momentu horretako diskurtso feministan berritzailea zena. Emakumeen aurkako indarkeria espezifikoaren adierazpen horrek bi salaketa zituen. Lehengoa, indarkeria matxista dela emakumeei eragiten zieten diskriminazioen adierazpen larriena, eta, bigarrena, emakumeei bakarrik zuzentzen zitzaizkien indarkeria-adierazpenak daudela, bakarrik emakume izateagatik.

Nafarroko mugimendu feministaren berezitasun nabarmenena emakumeen aurkako tratu txarren arazoa agerian uztea izan da. Espainiako Estatuan aurrekari bat suposatu izan du, eta modu honetan alderdi sozialarekiko konpromezua argi utzi du, diskurtso eta eztabaida teorikoetatik haratago joanda (Echeverria, 2014).

Aldarrikapenak aurreko emanaldietako ildoarekin jarraituta, 1991. urtera arte Nafarroako Koordinadora Feministak Iruñean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko deialdiak antolatu zituen. Genero-indarkeriaren gaia bereziki azpimarratzen jarraitu zuten, 1988ko manifestazioan islatu zen moduan. Bertan lehengo aldiz bikotekideek eraildako emakumeen kopurua salatu egin zen, modu honetan etxea emakumeen aurkako indarkeria gehien erabiltzen zen tokia zela agerraraziz. 1990eko deialdia ere azpimarratzekoa da, izan zuen oihartzunagatik. Garai horretan Nafarroan hiru ginekologo (bi emakume eta gizon bat) epaitzen ari ziren Iruñeko ospitale publiko batean abortuak egiteagatik. Nafarroako gizartean izandako eragina handia izan zen, bereziki “bizitzaren aldeko taldeek” eta Opus Deik egindako salaketak direla eta. Nafarroko feminismoan ere, gauzatutako gertaerak garrantzi handia izan zuen, hori dela eta urte horretako martxoaren 8ko ospakizunean gaia jorratu egin zen (Echeverria, 2014).

1990eko hamarkadatik aurrera, Martxoaren 8ko Batzordea sortu zen. Hortaz, deialdiak egitearen eta ospakizuna antolatzearen kudeaketaz arduratzen ziren parte hartzen zuten erakunde desberdinetako emakumeak. Echeverriak (2014) ondorioztatzen duen moduan:

Desde 1977, año en el que se celebró por primera vez en Pamplona el 8 de marzo, Día Internacional de la Mujer, esta jornada de lucha y reivindicación ha sido muy importante para la participación de las mujeres y el desarrollo del discurso político feminista en la Comunidad Foral, siendo el escenario de las principales reivindicaciones del movimiento feminista en Navarra. Son estas celebraciones, además, una muestra de la movilización social de las mujeres navarras por su liberación, haciendo públicas sus demandas, logrando que muchas de sus proclamas hayan formado parte de la “agenda política”, denunciando las situaciones de discriminación en los distintos ámbitos y la lucha contra violencia hacia las mujeres. [1977tik, martxoaren 8an Iruñean lehen aldiz Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu zenetik, borroka-

eta aldarrikapen-jardunaldi hori oso garrantzitsua izan da emakumeek parte har dezaten eta Foru Erkidegoan diskurtso politiko feminista gara dadin, eta horixe izan da Nafarroako mugimendu feministaren aldarrikapen nagusien eszenatokia. Ospakizun hauek, gainera, emakume nafarren askapenaren aldeko mobilizazio sozialaren erakusle dira, euren eskaerak plazaratuz eta euren aldarrikapenetako asko agenda politikoaren parte izatea lortuz hainbat eremutako diskriminazio-egoerak eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka salatuz].

## 1. 2. PERFORMANCE-AREN ERABILERA GENERO ADIERAZPENETAN

Tate Museoak, *Performance*-a “Artworks that are created through actions performed by the artist or other participants, which may be live or recorded, spontaneous or scripted” [“Artistak edo beste parte-hartzaile batzuek egindako ekintzen bidez sortutako artelanak, zuzenean edo grabatuta, berezkoak edo gidoiak izan daitezkeenak”] bezala definitu egiten du. “*Performance*” eta “*performance art*” terminoak 1970eko hamarkadan erabiltzen hasi ziren, baina *performance*-a arte bisual moduan 1910eko hamarkadan garatzen hasi zen, dada mugimenduari eta produkzio futuristekin lotuta. XX. mendean zehar *performance*-a artea egiteko modu ez-tradizional gisa ikusi arren, ekintza hauen bidez egindako mugimendu fisikoen iraunkortasun ezak pinturaren eta eskulturaren iraunkortasun estatikoaren alternatibak eskaintzen zizkieten artistei (Tate, 2023).

Baina *performance*-aren ezaugarriak esparru artistikoak gainditzen ditu, hori dela eta, bereizgarri hauek aurkitu ahal dira kulturaren beste arlo batzuetan. Hala nola, jolasetan, erritualetan, kiroleetan, *performance*-aren arteetan (musika, dantza, antzerkia...), eguneroko bizitzako *performance*-tan, praktika juridikoetan, herri-entretanimenduetan eta komunikabidetan (Pinta, 2005).

Ortiz-ek (2021) bi *performance* mota betatzen ditu, “kultur *performance*-a” eta “*performance* soziala”. Kultur *performance*-a drama estetikoak eta eszenaratzeak barne hartzen ditu, hala nola, antzerkia, zinema etab. Harentzat, “*performance* sozialaren” adierazpen nagusia “drama sozialak” dira, hauek gatazka egoeretan sortzen diren gizarte prozesuak dira. “Drama sozialak” arauak, legeak, printzipio moralak eta ohiturak hausten ditu. Apurketa hori pertsona edo kolektibo batek erabaki edo eragin dezake, eraturako agintea edo botere-harremanak zalantzan jartzeko helburuarekin.

Era berean, manifestazioak ekintza iragankor eta informal gisa ulertu behar dira, gizartearen momentu zehatz bat islatzen dutenak. Ekitaldi hauen bereizgarri nagusiak parte hartzaileen ugaritasuna, intentsitatea eta iheskortasuna dira (Orellana eta Chamorro, 2021). Hau dela eta, manifestazioak eta *performance*-a harreman estua dute, hainbat ezaugarri partekatzen dituztelako eta

*performance*-aren erabilera oraindik gaur manifestaldi desberdinetan erabili egiten delako. Cabrelli-k horrela definitzen ditu (2017, 4. or.): “significan la ruptura de una normalidad y, por lo mismo, pueden organizar la opinión pública. Las marchas quiebran la rutina de la vida social, lo cual les asegura una vía de acceso a lugares privilegiados de la agenda”. [normaltasun baten haustura adierazten dute eta, beraz, iritzi publikoa antola dezakete. Martxek bizitza sozialaren errutina hausten dute, eta horrek agendako leku pribilegiatuera iristeko bide bat bermatzen die].

Pinta-k (2005) azaltzen duen moduan artearen eta feminismoaren arteko harremana 1969aren inguruan ematen hasten da, feminismoaren bigarren olatuaren garapenarekin batera kontzientziatzeko modu eta tresna politiko gisa. Emakume bakoitzaren esperientziei buruz hitz egiteko erabiltzen hasi ziren, bai banako eta talde moduan ere. Gainera, haien emozioei, desioei eta esperientzia kolektiboari buruz hitz egiteko praktika artistiko mota bezala erabili izan zuten.

Hamarkada horietako testuinguru politikoan estigmatizatuak eta baztertuak sentitzen ziren emakumeak, kulturak eta gizarteak emandako rolaren ondorioz. Hortaz, egoera hori aldatzeko premiaz jabetuta, emakumeek haien existentzia politiko bilakatzeko eta haien bizitzak eraldatzeko ahalegina egin zuten. “Pertsona politiko da” kontzeptutik abiatuta emakume kolektibo giza ulertzeko bidea ireki eta kontzientzia eratzen hasi ziren. Modu honetan errebindikazio eta arte ekintza desberdinak burutzen hasi ziren emakumearen askapenerako aldeko mugimenduek (Alfonso eta Cintas, 2013).

Lehenengo une honetan *performance*-ak feministek beren burua entzunarazteko zuten beharra betetzea ahalbidetzen zuen ekintza artistiko zuzenena zen. *Performance*-a diziplina berria eta alternatiboa zenez, gizonek monopolizatutako praktika eta jakintza-alor tradizionaletatik (pintura, eskultura, arkitektura, etab.) urrundu egiten zen, modu honetan publikoarengana azkarrago iritsiz. 1970eko hamarkadako *performance*-aren euskarria gorputza izan zen, bai artistarena bera eta baita beste parte-hartzaile batzuen ere. Emakumearen gorputzaren erabilpena garaiko praktika artistikoen eta analisi kritiko feministen testuinguruan kokatu beharra dugu (Pinta, 2005).

*Performance*-a artearen eta bizitzaren artean mugitzeko modu bat bezala erabili zuten, gorputzaren dimentsio fisikoa aztertze bitarteko bat bezala. Ekintza honek gorputza erabiltzeko aukera ematen zien feministei, haien burua bera tresna bezala erabiliz, sentipen eta sentimendu mota guztiak adierazi ahal zituzten. *Performance*-a eraldatzeko, erantzun sozialerako, defentsarako, esku-hartze politikorako erremienta bihurtu zuten. Egindako ekintzak arauak hausteko, diskurtso nagusia urratzeko, emakumeei menderatzeari eta zapalkuntzari aurre egiteko, sexuen artean bereizitako esferen mugak apurtzeko eta haien guztien bizipenak ikusarazteko eta transmititzeko erabilgarria izan zen *performance*-a (Alfonso eta Cintas, 2013).

## 2. M8A IRUÑEAN: IKUSPEGI ARTISTIKOA ETA PARTAIDEEN TESTIGANTZA

### 2.1. PERFORMANCE-AREN EZAUGARRIAK MARTXOAK 8KO MANIFESTAZIOETAN

Beraz, *performance*-a, garrantzi handiko tresna da, bai manifestazioetan, bai feminismoan. *Performance*-aren eta feminismoaren arteko lotura bateratzen duen ekintza nagusietako bat M8ko adierazpenak dira. Lehen aipatu bezala, XIX. mendetik aurrera berdintasunaren eta emakumearen eskubideak aldarrikatzen diren eguna martxoak 8a da, emakume langilearen eguna. Martxoan ematen diren ekimen hauetan *performance*-aren ezaugarri anitz ikusi daitezke.

Elementu argienetarako bat kolorea da, feminismoak eta ondorioz M8ak kolore morea erabili izan ohi du bere borrokaren ikur bezala. Triangle Shirtwaist fabrikako sutean, aipatu den moduan borroka feministaren mugarrietako bat dena, sugarrak fabrika osotasunean kontsumitu zuten, baita barruan zeuden makinak eta materialak ere. Esaten da eraikinak ateratzen zuen kea, ia hiri osotik ikus ahal zena, more kolorekoa omen zela, alkandora fabrikari erabiltzen ziren ehunen koloreengatik. Hori dela eta, une hartatik aurrera morea emakumeen eskubideen aldeko borrokara lotuta geratu zen, 1911ko sutean hildako emakumeak sinbolo bihurtuz. Bestalde, mugimendu sufragistak ere, XX. mendeko lehen urteetan bere aldarrikapenek izaera sendoagoak bilakatu zirenean morea erabiltzen zuten borrokaren kolore sinbolikotzat, baita kolore berdea eta txuriarekin batera. Emmeline Pethick-Lawrencek, sufragista nabarmenetako batek azaldu zuen modua kolore bioleta subiranoen kolorea zen, beraz, botoa emateko eskubidearen alde borrokatzen zuen emakume bakoitzaren zainetan zegoen odola irudikatzen zuen, askatasunaren eta duintasunaren kontzientzia sinboloa bilakaturik. Zuriak, berriz, zintzotasuna irudikatzen du, bai bizitza pribatuan eta bizitza politikoan ere. Azkenik, berdeak hasiera berri baterako itxaropena sinbolizatu nahi zuen (Huguet, 2023b).

Parte hartzaileen jarrera *performance*-aren beste bereizgarri bat da. 1990. eta 2010. hamarkadak herritarren mobilizazioen ahultzea suposatzen zuen, baina feminismoaren laugarren olatuak<sup>6</sup> aurreko garaietako gogo kolektiboa eta aldarrikatzailea berreskuratu egin ditu, baina modu erabat desberdinean. Laugarren Olatuak nazka, nekea eta arbuioa adierazten ditu patriarkatuaren

---

<sup>6</sup> Laugarren olatua, feminismoaren lehen olatuaren jarraipen historikotzat jotzen da. Lehengo olatua XIX. mendearen bigarren erdian mugimendu sufragistak eratu zuen emakumeen aldeko botoa aldarrikatzen. Bigarren olatua XX. mendeko 1970eko eta 1980ko hamarkadetan eman zen eta askapen-mugimenduekin (ugalketa eta sexu eskubideekin) lotu zen nagusiki. Hirugarren olatua Rebecca Walker idazle eta aktibista feministari esleitzen zaio, 1992an Ms aldizkarian *Becoming the Third Wave* argitaratu zuenean. Laugarren olatua nazioarteko mugimendua izan da, indarkeria patriarkalaren aurrean erreakzio bat izan dela esan dezakegu. Aldarrikapen nagusiak berdintasuna falta eremu desberdinetan, emakumeen eskubideen urraketa eta emakumeen kontrako biolentziaren salaketa izan dira. Ezaugarri nabarmenena kaleetako agerpen jendetsuak izan dira, nazioko edo nazioarteko deialdien bidez.

aurrean. Nahiz eta itxuraz berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortu egin den, etenik ez duen emakumeen aurkako indarkeria, erasoak sexualak eta bortxaketak gero gehiago ematen dira, bereziki gazteen artea. Gainera, bizi garen mundu globalizatuan enplegu- eta zaintza-politikak emakume migratzaileak bi modu desberdinetan diskriminatzen ditu, emakume eta migratzaile izateagatik. Horretaz guztiaz gain, 2008ko krisi ekonomiko globalak emakumeak kaltetu nagusi bihurtu zituen garaian gertatzen da laugarren olatu hau. Horiek dira feminismoaren suspertzea bultzatzen duten faktoreetako batzuk, eta esan daiteke izaeraren aldetik feminismoaren lehen olatuen esentziak berreskuratu egiten direla orain. Olatu berri honetan funtsezko beste faktore bat dago, teknologia digitalaren gailentzea. Teknologiak sentimenduak, frustrazioa, amorrua eta nazka bideratzeko funtsezko tresna gisa baliatu egiten dira emakumeak (Pando eta Aurrekoetxea 2020).

Erabiltzen diren leloak ere *performance*-aren parte dira. Leloak urte horretako aldarrikapenak modu zehatzean laburtzen dituzte. Leloak bi modu desberdinetan ikusgarriak dira, alde batetik pankartetan. Pankartak aldi berean ere egile desberdinak izan ahal dituzte, orokorrean handienak eta manifestazioaren buruan daudenak antolatzen duten erakunde feministak eginak dira. Bestalde, manifestaldiaren barnean ere modu anonimoan emakumeak egindako kartelak daude. Pandok eta Aurrekoetxeak bere lanean *Prácticas discursivas feministas: análisis de los lemas de la manifestación del 8M en Bilbao* (2020) azaltzen duten moduan 2018ko eta 2019ko martxoaren 8ko manifestazioa agerian utzi zuen protestak ez zirela soilik mugimendu feministarekin (talde deitzailearekin) lotutako esparrua, Espainiako hirietan mota eta izaera guztietako jendea bildu zen, aurretik publikoki eta kalean kausa feminista babestu zuten pertsona ugari elkartzuz. Gertaera horrek biderkatu egin zituen erabaki pertsonal, espontaneo eta anonimo bati erantzuten zioten pankarta txikiak edo kartelak.

Baina leloek ez dute beti idatzita pankartetan edo beste euskarri batzuetan joan behar. Manifestazioen elementu performatiborik argienetako bat, ekitaldi osoan zehar eta manifestarien aldetik oihukatzen diren leloak dira. Honen adibide Echeverria-k (2014) bere lanean bildutako hainbat lelo dira. 1880ko hamarkadan aldarrikapen nagusietako bat lan-arloa izaten jarraitzen zuen. Gainera, urte horietan Langileen Estatutua egiten ari ziren hori dela eta, martxoaren 8a erabili zuten emakume askoren lan-egoera eta emakumeen langabezia-tasa altuak salatzeko. Erabilitako leloa (Echeverria, 2014, 44 or.) “Zutik emakumeak, hautsi gure kateak, zutik, zutik, zutik!” izan zen. Baita, pankartetan erabilitako leloa mobilizaziora deitzeko “En pie mujeres rompamos nuestras cadenas, en pie, en pie, en pie” [“Zutik emakumeok hautsi genituen gure kateak, zutik, zutik, zutik”] izan zen.

Euskal Herriko Mugimendu Feminista bereizgarria da, bere leloak direla eta. Arrate Gutierrez-ek azaltzen duen moduan 2014tik aurrera Euskal Herriko feministak “*El miedo va a cambiar de bando*” leloa bereganatzen dute eta bertatik oinarrituz bere burua antolatzen hasten dira, Euskal Herrian

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

zehar eraso matxisten aurka protesta egiteko. Protesta hauek jai-giroan gertatzen direnen agresioen aurka daude, jaietako euforia eta alkohol gehiegi hartuta agresio gehien gertatzen diren guneak direlako. Oinarri horietatik gaur egun oraindik martxoak 8ko manifestazioetan entzuten diren leloak sortzen hasten dira: “Erasorik ez erantzunik gabe”, “Jaia, gauak gureak dira”, “*Matxete al matxote*”, “*Ante un Agresor, Cóctel Molotov*” etab. Lelo hauek transmititzen duten jarrera borrokalaria da, damurik eta amore ematerik gabe, eraso matxisten aurreko erantzuna argudiatu eta sustatzen dutenak, liskarra eta ekintza zuzena baztertu gabe (Gutierrez, 2017).

Mota honetako leloak erabiltzen diren manifestaldi askotan gatazka armatuak gogora ekartzen dituzten elementu performatiboak erabiltzen dira, hala nola, kaputxa, gaua, janzkera beltza edo sua. Estetika ere martxoaren 8ko manifestazioetan emandako *performance*-aren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat da. Aurretik aipatu bezala, oro har Euskal Herrian estetikaren adibide oso argiak ditugu, izan ere, leloen, posterren eta pankarten bidez adierazitako diskurtsoarekin batera, janzkera beltza, buru-estalkiekin edo antzekoekin estalitako aurpegia, sua eta batukadak daude. Horrela, nahita aukeratutako teknika performatiboek beldurra eta indarkeria sinbolikoa erabiltzen duten estetika sortzen dute. Indarra, boterea eta beldurra transmititzea dira zenbait kolektibok nahita hartutako estrategiaren eta aktibismoaren ezaugarri nagusiak (Gutierrez, 2017).

Erakunde feministak antolatutako ekitaldietan, gatazka armatuetan ohikoak diren hainbat elementu berreskuratzen dira. Hauek anitzak dira eta forman emandako aldaketak jasan dituzte baina Rodriguez-ek (2015) lau nagusi aipatzen ditu bere lanean:

Hasteko, gorputzak berriz estaltzen hasi dira, batez ere gaueko manifestazioetan. Buruko estalki moreak eta jantzi beltzak erabiliz, identitatea lausotzen da, izengabetasuna berreskuratzen da eta era sinboliko batez klandestinitate eta alegialitate logiketara eramaten gaituzten oroitzapenak suertatzen dira. Bigarren elementu bat iluntasuna da. Ekintza politikoa, ekintza feminista, alegia, askotan iluntasunean suertatuko da, gaua espazio politiko baliagarri bezala berreskuratuz. [...] Hirugarrenik, sua elementu zentrala bilakatzen da mobilizazioetan; baina mugimendu feministak historikoki suari emandako botere araztailea alde batera uzten da (akelarreak, adibidez), eta suak duen suntsitze ahalmenean zentratzen du bere marko ekintzaile berria (Rodriguez, 2015, 85 or.).

### **2.1.1. LATINOAMERIKAREN KASUA**

Gaur egun, adierazpen feminista askotan *performance*-ak egiten dira, subertsioa eta errebindikazioa adierazteko modu gisa. Munduan zehar entzutetsuenak eta gizartean eragin handiena

duenak Hego Amerikako herrialdeetan egindakoak dira. Ekintza horiek emakumearen gorputza aldarrikapenaren erdigunean jartzen dute berriz ere, 1970eko hamarkadan egiten zen bezala.

Cebrelli-k esaten deun moduan (2017), ez da kasualitatea *performance* horiek pisu eta garrantzi handiagoa izatea Latinoamerikan. Izan ere, Hegoamerika da emakumeei eraso gehien egiten zaien eta desberdintasun gehien dagoen tokietako bat. Argentinaren adibidea daukagu non, 30 orduo gertatzen da feminizidio<sup>7</sup> bat. Gainera, *performance*-aren erabilpena Latinoamerikan bigarren olatuaren testuinguruan hedatzen hasten zen, hainbat artista independenteen eskutik. Mugimendu honen berezitasuna Europako eta Amerikako Estatu Batuetako *performance*-ak konparatuz diktadura militarrek, pertsonen desagerpena, gobernu antidemokratikoak, populazioen pobrezia eta prekarietatea, sexu-disidentzien aurkako jazarpenera eta emakumeen aurkako muturreko indarkeria salatzea izan da (Ortiz, 2021).

Santiago, Txilen, emandako M8ko manifestazioak ezin hobeto jasotzen ditu aurretik aipatutako ezaugarri asko. Orellana-k eta Chamorro-k adierazpena kolore, janzkera eta biluzizko paleta handi bat bezala deskribatzen dute, gorputzak agerrarazten zituena. Kartelak ugariak zirela azaltzen dute, eta ez manifestaldiak antolatzen dituzten taldeen pankartak, baizik eta hurrek, neska gazteek eta amek zeramatzen kartelak ziren. Gainera, emakume askok leloak zeramatzen idatzita beren gorputzetan: “*Para que mi hija sea libre*”, “*Mi cuerpo es mi decisión*”, “*Aborto libre, seguro y gratuito*”. Kantuak ere elementu performatibo garrantzitsuak ziren Santiagoko manifestazio honetan, honako hauek bereizten dira: “*NO es NO... ¿qué parte no entendiste? ¿la N o la O?*”, “*No soy un perro, no me silbes*”, “*Soy la voz de las que ya no están*”, “*Alerta, alerta, alerta machista... que todo el territorio se vuelva feminista*”. Era berean, balio sinbolikoa duten objektuak ere erabiltzen zituzten, hala nola kandelak, argazkiak, loreak etab. (Orellana eta Chamorro, 2021).

Azken urtetan protestetan egindako *performance* garrantzitsuena, Latinoamerikan ez ezik mundu mailan ere oihartzun handiena izan duena “*Un violador en tu camino*” izan da. “Bortxatzaile bat zure bidean” izeneko *performance*-a Lastesis talde txiletarra asmatu zuen, bortxaketari buruzko lan artistiko zabalago zen hasiera batean baina haren garapena eten behar izan zuten 2019ko urrian Txilen izandako eztanda sozialaren ondorioz. Azaroaren 25ean, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, emakumeek Santiagoko Arma Plaza eta hiri horretako hainbat

---

<sup>7</sup> Feminizidioa gorrotozko krimena da, emakume izateagatik emakume bat hiltzean datzana. Kontzeptuak larritasun handieneko ekintza bat definitzen du, diskriminazioaren eta genero-indarkeriaren testuinguru kultural eta instituzional batean, eta horren biktima diren emakumeen eta nesken aurkako torturak, mutilazioak, erredurak, ankerkeria eta sexu-indarkeria ekarri ohi ditu.



M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

gune okupatu zituzten, *performance*-aren bidez Txileko Estatuko erakundetatik jasaten zuten indarkeria agerian uzteko eta salatzeke (Ortiz, 2021).

Testuinguru horretan, Lastesis-ek taldeak ekintza global batera deitu zuen azaroaren 29an *performance*-a bera munduko beste tokietan erreproduzitzeko. Erantzuna izan zuten kontinente guztietako 300 hiri baino gehiagotan, egun honetan, eta hurrengo egunetan. Hego Amerikan emakumeek esku hartu zuten ia herrialde guztietan, Europan, Asian, Afrikan eta Ozeanian emakumeek hiri askotako kaleak okupatu zituzten. *Performance*-aren jardunaldiak egokitzapen batzuk izan zituen edo kontsigna propioekin aldatu zituzten, herrialde bakoitzaren testuinguruaren arabera. Adibidez, Indian emakumeek abestiaren zati batzuk aldatu zituzten beren sistema patriarkalaren berezitasunen berri emateko (Ortiz, 2021).

## 2.2 IRUÑEKO ELEMENTU BEREIZGARRIAK

Esan bezala, Iruñeko manifestazioetan *performance*-arekin lotutako elementu bereizgarriak aurkitu ahal ditugu. Elementu bereizgarri hauek azken urteetan Iruñean bertan gertatutako mugarren erantzun zuzenak dira. Adibidez, Sanferminak funtsezko puntua dira Iruñeko borroka feministan. Gutierrez-ek esaten duen moduan (2017), bi aste hauek bereziki basatiak dira eraso matxistei dagokienez, festetako filosofiaren barnean denak balio baitu. Kasu asko aipa genitzakeen arren, Iruñeko gizarte osoan eragin handiena izan dutenak Nagore Laffage-ren kasua, 2008ko Sanferminetako txupinazoan Jose Diego Yllanes-ek erahil zuena, eta 2016ko uztailaren 7an 18 urteko neska batek jasan zuen talde-bortxaketa izan dira.

Iruñean horrelako gertakariak bizi izan dira azken urtetan, ondorioz, biztanleriaren zati handi batek salatu egin ditu eta arbuioa islatu dute, bereziki erakunde feministetatik. Beste gertaera desberdin batzuk aukeratu ahal ditudan arren, lan hau aztertzeke lau gertakari zehatzetan jarriko dut arreta. Hauek Nagore Laffage-ren hilketak, 2016ko La Manada-ko talde-bortxaketa, 2018ko emakumeen greba orokorra eta COVID-aren pandemia izango dira.

Lau gertakari hauek mugarri izan dira, eta, beraz, martxoaren 8ko manifestazioetan islatu dira. Izan ere, lehen esan dugun bezala, manifestaldiak dira, iheskorak izan arren, momentuko egoera soziala hobeto islatzen duten gertakariak. Horregatik, nire lanaren azterketa manifestaldi hauetan oinarrituko da eta lehen aipatu dugun *performance*-aren ezaugarriak, hala nola koloreak, leloak, pankartak, jarrera, estetika... ikertuko dira aldatu egiten diren (edo ez) egoera sozial, politiko eta ekonomikoaren arabera ikusteko, beti lau mugarri horietan oinarrituz.

### 3. ELKARRIZKETAK

Lan honen ikerketa egiteko, informazioa biltzeko teknika gisa elkarrizketa aukeratu dut; izan ere, tresna horrek informazioa pertsonalki objektibatzen du, gertaerei, esperientziei, iritziei etab. buruz (Folgueiras, 2016). Erremienta hau erabiltzea erabaki dut, Iruñeko *performance*-aren ezaugarriari bildutako informazioa osatzeko helburuarekin.

Elkarrizketa erdiegituratua egitea erabaki dut. Horretarako, alde aurretik gidoi bat egin nuen, elkarrizketaren helburu orokorrari erantzungo zioten galderak prestatuz. Nire helburua elkarrizketa irekia ahalbidetzea izan zen, modu honetan elkarrizketatuak askatasun osoz haien ikuspegitik eta subjektibotasunetik gaiaren inguruan duten iritzia eta bizipenak adierazteko. Horretarako galdera irekiak egin nituen. Gainera, hainbat irudi erabili nituen, interpretazioak sustatzeko eta elkarrizketatu bakoitzaren ikuspegia aztertzeko.

Partaideak osotasunean emakumeak izan dira. Alde batetik, emakumeak direlako feminismoaren protagonistak eta sortzaileak, martxoaren 8ko manifestazioak eta ekitaldiak urtero eraikitzen eta antolatzen dituztenak, eta, beraz, haien esperientzia eta ikuspuntua islatu nahi nituzke lan honetan. Eta, bestalde, arrazoi praktiko batengatik, errazagoa zen emakumeak aurkitzea, bai erakunde eta mugimendu feministetako kide direnak, bai manifestazioetara erregulartasunez joaten direnak.

Elkarrizketan parte hartu duten emakumeak hiru adin-talde desberdinetakoak ziren (20-30, 40-50, 60-70). Izan ere, garrantzitsua da M8ko adierazpenen elementu performatiboak adinaren ikuspegi desberdinetik aztertzea, urteekin eta esperientziarekin gertakariak modu desberdinean ulertzen direlako eta jarduteko modua aldatu eta eboluzionatu egiten delako. Era berean, badira azertu nahi ditudan mugarrietako batzuk (Nagore Laffage-ren hilketak, adibidez), 20 urteko gazteak oroitzen ez ditugunak edo ez genituenak bizi martxoak 8ko protestetan, oso txikiak ginelako.

Elkarrizketan bi talde desberdinetan egin izan da. Lehengoa, modu batean edo bestean Nafarroako Mugimendu Feministako kide zuzenagoak diren emakumeak izan dira (kolektibo desberdineko emakumeak parte elkarrizketatuak izan dira). Bigarren taldea berriz, ekitaldietara joaten diren eta azertu nahi ditudan aldaketen lekuko izan diren emakumeak dira, baina manifestazioaren sorreran parte aktiboa ez dutenak. Elkarrizketak taldeka egitea erabaki dut, fenomeno beraren ikuspegi desberdinak ikusteko modurik onuragarriena dela uste dudalako. Baina, aldi berean, bereizi egin nahi izan ditut hain markatuta dauden bi talde horietan. Horrela, manifestaldietan modu aktibagoan parte hartzen dutenak, beren esperientzia dela eta, manifestazioetara bakarrik joaten diren oroitzapenak edo ikuspuntua ez zapaltzeko.

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

Egindako elkarrizketa bakoitza sakonak dira eta uste baino gai desberdinak proposatzen dituzte. Bi kasuetan nire ideien aldaketa bat suposatu zuten eta aldi berean aurretik aipatutako ikuspegiak eta ikerketak osatu zituzten. Lanaren luzeera dela eta, egokitzat jo dut bi elkarrizketa baino ez egitea, kopuruan elkarrizketa gehiago bilatu beharrean eta hainbeste ez sakontzea baizik. Modu honetan bakoitzari arreta gehiago eskaini ahal diot.

Elkarrizketatuek emandako erantzunak ulertu ahal izateko, garrantzitsua iruditzen zait alde zuzenetik alderdi pertsonal batzuk aipatzea, hala nola adina, lana eta talde feministen barneko inplikazio-maila M8ko antolaketan. Elkarrizketak bi taldetan banatu dira: lehenengoan, Iranzu Gelbenzu (21), Lourdes Zabalza (57) eta Soco Percas (62) parte hartu zuten. Bigarren taldea Jaione Zabaletak (21), Joana Eguillorrek (46) eta Maricarmen Echeverriak (69) osatzen dute.

Lehen talde horretako kideak martxoak 8ko manifestaldietara joaten dira aldizka; bigarrenekoak, berriz, manifestazioetara joaten dira, baina, gainera, kolektibo feminista desberdinetakoak dira, hori dela eta, ekitaldiak antolatzen dituzte. Jaione Italiako militantea da (Euskal Herriko erakunde sozialista), Joana Burlatako Talde Feministako kide da, eta elkarrizketan esaten duen bezala, Gurutze Gorriarekin eta ANFAS-ekin lan egin du esparru horretan. Azkenik, Maricarmen Nafarroako Lunes Lilas-ko kide izan da 1980ko hamarkadatik, eta gaur egun presidentea da. Haien lan-bizitza ere garrantzitsua da, feminismoarekiko ikuspegi eta lotura desberdina erakusten digu eta. Jaione eta Iranzu unibertsitateko ikasleak dira, Lourdes irakaslea, Maricarmen eta Soco erretiratuta daude, baina biak zerbitzuen sektorean lan egiten zuten, eta azkenik Joana politikaria da.

Elkarrizketaren lehen galdera oso garrantzitsua zen analisi honetarako, lan honen garapenean aurretik ezarritako mugarrak berresteko, jakiteko mugari horiek aldatu egin dituzten Iruñeko M8ko adierazpenetan aurkitu ahal diren ezaugarri performatiboak edo ez. Bi kasuetan, lehen erantzuna argia izan zen: 2016ko Sanferminetako La Manada-ren talde-bortxaketa, funtsezko puntua izan zen Iruñeko martxoak 8ko ekitaldietan izandako aldaketak ulertzeko. Bigarren erantzuna ere azkarra eta agerikoa izan zen, Nagore Laffage-ren hilketak 2008an Sanferminetan ere. Iranzuk, lehen elkarrizketan, 2018ko greba orokorra aipatu zuen mugimendu feministaren azken urteotako funtsezko unetako bat bezala. Ondoren, solasaldian zehar, COVIDaren pandemia ere aipatu zen. Hasieran, elkarrizketatutako emakumeek ez zuten uste garrantzizko puntua izan zenik Iruñeko azken aldiko feminismoaren historian. Baina gaia eztabaidatu ondoren, argi geratu zen guztientzat pandemia izan zela feminismoari eta M8a antolatzeko moduari gehien eragin dion gauzetako bat.

Gainera, partehartzaileek nabarmendu zuten Nagoreren kasua mugari bat izan zela ezaugarri horietako hilketetan edo bortxaketatan emandako erantzunetan. Izan ere, aurretik gertatutako

antzeko krimenetan, hala nola, Alcasserreko nesken hilketan edo Anabel Seguraren hilketan, gizartean hunkidura handia eragin arren, ez zen horrelako defentsa-erantzunik izan. Joanak aipatzen duen bezala: *“Lejos de salir a protestar, lo que te infundía era el miedo, no salgas, es que ellas iban tres... y sin embargo ahora... Se da un empoderamiento, y a eso se ha llegado con un trabajo que ha habido detrás. Otro caso que es muy sonado también es el de Anabel Segura, yo creo, también una chica a la que la secuestraron y mataron, y era no vayas sola a hacer deporte. Y sin embargo ahora se está trabajando, se está respondiendo de otra forma, ya no es quédate en casa sino nos juntamos todas y vamos a pararlo. Yo creo que fueron casos muy sonados y que la respuesta fue totalmente diferente a lo que se había hecho antes”*.

*Performance*-aren ezagutzari eta horrek feminismoarekin duen inplikazioari dagokienez, alde nabarmena zegoen bi taldeen artean. Azaldu dudanez bezala, elkarrizketatuen lehen taldeak ez du zeregin aktiborik M8ko adierazpenetan, parte hartzen dute baina inolako mailean antolatu gabe. Talde honek *performance*-ari buruzko ezagutza zuen, baina diziplina artistiko hau definitu behar izan nuen, hobe ulertzeko. Gainera, *performance*-aren kontzeptua aurkeztu ondoren, feminismoarekin eta M8arekin zuen harremana azaldu behar izan nuen, Lourdesek esan zuen bezala: *“Ez dakit ondo nola lotu nahi duzun”*. Bigarren taldean, berriz, hiru partaideek *performance*-a zer zen bazekiten, ez zen beharrezkoa izan definizio bat ematea eta elkarrizketaren sarrera bezala soilik azaldu nuen feminismoarekin zuen harremana. Hiru elkarrizketatuak Iruñean gertatutako *performance*-ak adibide jartzeko gai izateaz gain, eszenaratzean edo antolaketa parte hartu zuten adibideak jarri zituzten.

Jarraian, martxoak 8ko adierazpenetan aurki ditzakegun *performance*-aren elementuei buruz galdetzen hasi nintzen. Koloreak izan ziren guztiak ados egon ziren *performance*-aren ezaugarri bakarrean. Partaide guztientzako morea feminismoaren kolorea da eta horren bereizgarria denez ere bada martxoak 8ko kolore esanguratsuena. Aurretik irakurritako iturriengatik eta aurtengo M8ko manifestazio honetan hauteman nuenagatik, uste nuen beltza adierazpen horiekin lotuta egon ahal zen kolore bat zela ere, baina ez zen elkarrizketatuen arteko iritzi orokor bat izan. Maricarmen izan zen nirekin ados egon zen bakarra, Lunes Lilas-en barruan parte hartzen duen ekintza askotan bere burua morez eta modu osagarrian beltzez jutzen dulako.

Emakumeek aipatu zuten beste kolore bat gorria izan zen, Sanferminekin lotura handia duen kolorea, jantzi tradizionalaren bi koloreetako bat baita: arropa zuria eta zapi eta gerriko gorria. Niretzako gorria ez da Emakume Langilearen Eguna dela-eta egiten diren adierazpenekin lotutako kolorea. Beraz, analisitik kanpo geratuko da. Hala ere, ezin dugu ahaztu jai hauek oso garrantzitsuak direla Iruñean, hori baita hiriak duen ikono nagusia. Gainera, aztertzen ari garen bi gertaera garrantzitsu gertatu ziren testuingurua dira, Nagoreren hilketeta eta La Manada-ren talde-bortxaketa.

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

Hortaz, Sanferminetan ere manifestaldiak egin ziren bi gertaerak salatzen eta gaitzespenaren seinale gisa. Protesta horiek berezko izaera dute, Iruñean hurrengo urteetako martxoaren 8an eragin handia izan zuten sinbolo, lelo eta jarduerekin lotura dute. Hala eta guztiz ere, bere ezaugarriak desberdinak dira M8ko bereizgarriekin alderatuta.

Martxoak 8ko festa-giroa 6 emakumeek gehien adierazi zuten bereizgarri performatiboetako bat da, batez ere azken urteetan. Joanak arrazoitzen duen moduan: *“Tiene que resultar atractivo el que yo vaya y es así un poco cómo logramos enganchar a la gente. Porque una manifestación que si no tiene música, que si tampoco tiene no se que... Yo creo que la sociedad ahora es más exigente a la hora de ir a las manifestaciones y bueno si hay que hacerlas atractivas para que venga más gente pues habrá que hacerlas. Porque está claro que lo de siempre no funciona, no funciona igual. Una cosa es que tengas mucha conciencia, si a mi resulta que yo que soy muy concienciada logro que con una batucada se anime gente que de otra manera no vendría, pues bienvenida.”*

Hala ere, jarrera da urteetan zehar gehien aldatu den ezaugarrietako bat une garrantzitsu hauen ondorioz, Iranzuk lehen elkarrizketan aipatu bezala: *“La Manada-ren garaian mani guztiak super konpaktoak ziren, jarrera zen super haserre, «no pasamos ni una»”*. La Manada-ko talde-bortxaketak azken urteetako aldaketarik nabarmenena ekarri zuen nire ustez feminismoan, ez bakarrik Nafarroako mailan, baita nazio-mailan ere. Iruñean erantzuna argia izan zen, jarrera serioa zen eta jai-girorik ez. Era berean, partaide helduentzat, Nagoreren hilketa izan zen jarrera-aldaketa sustatu zuen lehen mugarría. Lourdesek hausnartzen duen moduan, aldaketa hori belaunaldi berriek ekarri dugun kontzientzia-aldaketaren emaitza izan zen, feminismoan inplikatur joan garen heinean. Gainera, Nagoreren amak sustatu egin du kontzientzia-aldaketa horren zati handi bat. Maricarmenek esaten duen bezala, emakume honek alabaren omenez egiten diren elkarreratzen bakoitza antolatzen lagundu du, eta jarduera ugari egin ditu ikastetxeetan eta beste erakunde batzuetan.

Beste aldaketa nabarmenetako bat COVID-aren pandemia izan zen. Pandemia horrek edozein egoeratan izan zuen eragina, baina M8ko antolakuntzan izugarritzko urruntzea ekarri du Iruñeko talde antolatzaileen artean, Maricarmenek kontatzen duen bezala. Era berean, COVID-ak sortu zituen gainerako salbuespenezko egoerek bezala, martxoak 8ko manifestazioak inoiz ikusitako ezaugarriak izan zituen. Burlatako argazki baten adibidearekin, 2021eko M8ko manifestaldi horretan, parte-hartzaileek egoera hauek deskribitu zituzten: *“En fila”, “A un metro de distancia”, “En nuestros pueblos y barrios en vez de en Iruña”, “Con personas responsables de respetar las medidas de seguridad”*... Elkarrizketatuek jarrera serioa gogoratzen dute, baita egoera hotza, arraroa eta ia desatsegina izan zela uste dute. Bertaratu ziren eta parte hartu zuten, pandemian ere beharrezkoa zelako Emakume

Langilearen Eguna ospatzen jarraitzea, baina neurri batean nortasuna galdu zuen, manifestaldiak irudikatzen duten giza beroa, indarra eta dinamismoa falta baitziren.

M8ko manifestazioetara joan diren pertsonen jarrerari eta parte-hartzaileen kopuruari dagokienez, pandemiak aldaketa handia ekarri du. 2018ko grebak lortutako jendetza indartsua eta Nagoren eta La Manada-ko gertakariak sortu zuten seriotasun eta kontzientzia egoera galdu egin dira. Horren ondorioz, 2022ko eta 2023ko manifestaldiak ez dira hain jendetsuak izan eta jai-girokoak bilakatu dira, 6 emakumeen iritziz. Lourdesek dioen bezala: “Uste dut orokorrean lasaitu garela pixka bat... Nire adinako jendea adibidez, lagun batzuk ditut lehen beti parte hartzen zutela gauzak okerrago zeudenean. Orain dirudi pixka bat hobetzen ari dela puntu hau eta baretu edo lasaitu gara”.

Aldaketa handiak jasan dituen beste elementu bat leloak izan dira. Maricarmenek aipatzen duen bezala, lelo batzuk parte hartu zuen lehen adierazpenetatik gogoratzen ditu, eta gaur egun ere indarrean daude: *“El eslogan «Manolo la cena te la haces tú» está desde que mi hijo tenía 2 años y lo sigo escuchando”*. Leloak gehien markatu dituzten eta berezko esloganak sortu dituzten bi mugarririk Sanferminetan izandako bi gertaerak izan dira. La Manadako talde-bortxaketa mugarririk garrantzitsua izan zen, eta gaur egun oihukatzen jarraitzen diren leloak sorrarazi zituen. Elkarrizketatuak gehien nabarmentzen dituztenak honako hauek dira: *“Tranquila hermana, aquí está tu manada”*, *“Yo sí te creo”*, *“No es abuso es violación”* *“Me cuidan mis amigas, no la policia”*. Nagoreren hilketari dagokionez, zailagoa izan zen mugarririk horren ostean antolatutako manifestazioei lotutako leloak argitzea. Bi elkarrizketatu gazteenak (Jaione eta Irantz) ez ziren manifestaldietan egon, gertakariaren unean 7 urte baino ez zituztelako. Parte-hartzaile helduenak Nagoreren izena oihukatzen zuten leloak gogoratu zituzten eta bereziki *“Por tu ausencia”*. 2018ko martxoaren 8ko emakumeen grebak ere bere leloak izan zituen, ozenena eta gaur egun erabiltzen jarraitzen dena: *“Si nosotras paramos, se para el mundo”*.

Kartelak ere aldaketak izan dituen ezaugarria dira. Bi elkarrizketetan, irudi baten bidez galdetu nahi izan nuen 2019ko M8ko manifestazioaren argazki batean ikusten zutena. Kartelak izan ziren erantzuna beste batzuen artean. Kartel hauek emakume askok eramaten zituzten banaka, eta ez modu kolektiboan, pankartak bezala. Aldaketa hau azken urteetan eman da, Joanak azaltzen duen bezala: *“Una cartulina te permite escribir ese lema que a ti te ha impactado y lo pones a modo individual. La pancarta es como más colectivo, el cartel es más el individualismo. Cómo decir esto me ha impactado a mí o quiero reivindicar yo.”* Lau parte-hartzaile helduenak ados egon ziren azken hamarkadan gertatu den aldaketa onartzean. Izan ere, lehen ez zen ohikoa kartelak banaka ikustea, baizik eta pankarta bat egitea, manifestaldiaren buruan jartzeko eta kolektibo bakoitzak bere pankarta eramatea nahi izatekotan. Hau, zalantzarik gabe, belaunaldi berriek ekarri duten aldaketa bat da, Iranzuk dioen bezala:

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

“Gazteen aldetik ikusten dira asko eta mezuak dira errebindikazioa baina humoretik eramandan, txiste eginda”.

Hala ere, ez da M8ko manifestaldietan adierazpen moduan gertatu den aldaketa bakarra. Socok dioen bezala: “Manifestazio guztietan, lehen oihukatu egiten zen askoz gehiago, ibiltzen ginen gehiago leloak esaten, eta orain askotan elkarren artean doaz hitz egiten eta ez duzu entzuten ezer”. Lehen oihuak, kantak, txistuak askoz ohikoagoak ziren. Aldiz, 2023ko martxoak 8ko manifestazioan ia ez zen lelorik oihukatu eta ez zegoen inor megafonoekin animatzen edo leloak hasten, askoz ohikoagoa da jende taldeak euren artean hitz egiten ikustea leloak oihukatzen baino. Ekitaldiaren eremuaren arabera egoera alda daitekeen arren, aldakuntza orokorra izan da, bai M-8an, bai beste manifestaldi batzuetan ere. Hala ere, kontuan hartu behar dugu Lourdesek aipatzen duen beste elementu bat, oihuek askoz ere pisu txikiagoa izan arren, gaur egun kartelak ugaritu egin dira. Horrek, pankartekin bezala, elementu kolektibo batetik indibidualago batera aldatu dela erakusten du.

Partaide guztiak bat datoz M8ko lelorik garrantzitsuena eta gehien entzuten dena “Gora borroka feminista” dela. Izan ere, euskara martxoak 8ko adierazpenen berezko ezaugarria da, Nafarroan eta Euskal Herrian bakarrik ematen dena. Elkarrizketatuen lehen taldeak ez du lotzen euskararen erabilera elementu garrantzitsu gisa, baina ados daude izaera aldarrikatzailea duela esatean. Berezitasun hori bigarren taldeko emakumeek babesten dute, testuinguru horretan euskararen erabilera modu aldarrikatzailean eta mezuari indar handiagoa emateko egiten dela uste dute eta. Iruñean euskara M8ko manifestazioekin zuzenean lotzen den zerbait da, eta izaera propioa eta gurea ematen dio, Jaionek dioen bezala: “*Ves videos de manifestación del 8M de Madrid y es como que lo ves raro, te falta algo. Los lemas rítmicamente son iguales, sonoramente son iguales pero no te suenan igual, les falta algo*”.

Sinboloei dagokienez ere iritzi bateratua egon zen, parte-hartzaile guztiek “eskutxo” morearen ikonoa M8ko adierazpenekin lotu zuten. Gainera, emakumearen zeinua ere aipatu egin zen, Joanak eta Lourdesek eguna azaltzeko eta *performance* ezberdinetan erabiltzeko oso ikur baliagarria zela adierazi zuten. 2018ko manifestaldiarekin lotutako galderen ondorioz, non emakumeentzako greba orokorra deitu egin zen, urte horretan erabilitako hainbat sinbolo atera ziren. Hala nola amantalak, erratzak etab. Horiek manifestaldian zehar erabili ziren, baita hainbat emakume-taldek hiriak apaintzeko erabili zituzten, urte horretako martxoaren 8an. Adierazpen feministetako eta, beraz, M8ko ikurretako beste garrantzitsuetako bat emakumearen gorputza da. Ikusi dugunez, feminismoaren bigarren olatuan lehen *performance*-etan erabiltzen zen elementu bat zen. Gaur egun, bereziki Latinoamerikan, emakumearen gorputzaren erabilera sinbolikoa oso zabaldua dago, baina ez da Iruñearen kasua,

Lourdesez dioen bezala. Gainerako elkarrizketatuak bat datoz, ez dakigu lotsarengatik, martxoan eta Iruñean egiten duen klimagatik edo beste arrazoi batzuegatik, baina Iruñeko emakumeek ez dituzte haien gorputzak ikur bezala erabiltzen martxoak 8an.

Baina M8ko adierazpenetan sinbolismoz erabilitako elementuen artean ezin gara objektuetara bakarrik mugatu, baita adierazpenak egiten diren espazioak ere garrantzitsuak dira. Iruñean nagusia zein den argi zeukaten partaide guztiek, Gazteluko Plaza, eta bere garrantziaren arrazoia oso ondo laburbiltzen du Joanak: “*Es el corazón de Pamplona*”. Feminismoak eta Emakume Langilearen Eguneko manifestazioak duten garrantzia erakusten du halako espazio batean egiteak. Milaka emakumeek Iruñeko toki famatuena bete egiten badute, haien aldarrikapenekin, indarrarekin, ekintzekin etab. izugarritzko atentzia bereganatzen dute eta modu honetan haien eskaerak gehiago entzungo dira.

Martxoaren 8ko adierazpenetan *performance* ugari egiten dira, eta 3 puntutan sailka ditzakegu burutzen diren unearen arabera. Lehenengoa, M8ko egunean egiten diren jarduerak edo ekintzak dira. Egun berean edo aurreko egunetan ere jarduera asko egiten dira, data prestatzeko: zinema, antzerkia, poesia, jarduerak ikastetxeetan etab. Bigarren taldea M8ko manifestazioan gauzatutako *performance*-ak dira, batukada eta musika dira gehien erabiltzen direnak, lehen aipatu dugun jai-giro hori ekartzen dutelako. Azkenik, manifestaldia ixten duten *performance*-ak daude, amaitzen den tokian egiten dira eta diskurtsoa irakurri aurretik edo ondoren doaz. Hemen dantza, zirkua eta kanta akustikoak nabarmentzen dira. Aurreko unek baino izaera formalagoa eta jai-giro gutxiagoa dute. *Performance* horien beste ezaugarrietako bat da, askotan, Nafarroako elementuekin egiten direla emanaldiak, Iranzuk dioen bezala: “Gainera ere Nafarroan eta Euskal Herrian mailan erabili izan dira euskal dantzak, gure etxeko zerbait”. Euskal dantzak eta dantza taldeetako emakumeen parte-hartzea azpimarratzekoa da, baita txalaparta eta bestelako elementuak erabiltzen dira.

Adierazpenetan zehar *performance* mota desberdinak egoteak eta ekintza horiek berezko ezaugarriak eta unek izateak erakusten du M8ko manifestaldia ez dela parte-hartzaileen masa heterogeneoa. Maricarmenek azaltzen duen moduan, ekintzak antolatzeke orduan hainbat kolektibo feminista batu eta aldarrikapenerako ideiak ematen dituzte. Taldeen aniztasunak giro aniztasuna ere sortzen du, askotariko musika duten jai-giroetatik manifestazioaren buruan egon ohi diren egoera formalagoetara arte. Gainera, azken urteotan, LGTBQ+ kolektiboek, emakume etorkinek eta desgaitasuna duten emakumeek bat egin dute martxoak 8rekin, bezko aldarrikapenekin eta ekimenaren barruan giro propioak sortuz. Era berean, beste elementu bat ere batzen da, “zutabeetan” bere herri eta auzotik Iruñeko erdiguneraino oinez igotzen diren emakume taldeak, eta manifestaldiarekin bat egiten dutenak hasierako puntuan. Horrek ere hainbat eremu sortzen ditu, emakume asko bizilekuaren arabera taldekatzen dira eta. Horren ondorioz, Maricarmenek dioen



M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

bezala, hainbat jarrera daude manifestazioan: *“Las chicas de Atarrabia vienen siempre con el carro, la música, la cerveza... toda la batucada que le meten...”*.

Bi elkarrizketak ixteko erabili nuen azken galdera M8ko adierazpenetako sentimenduei, oroitzapenei edo sentipenei buruzkoa izan zen. Kasu honetan, interesgarria da erantzunak parte-hartzaileen adinaren arabera alderatzea. Helduenak, Maricarmenek eta Socok, aurreko emakumeen oroitzapenak aipatu zituzten, Socoren kasuan amaz eta amonaz oritzen da eta Maricarmen kasuan aurreko emakume antolatzaileetaz. Bientzat garrantzitsua da aurrekoak gogoratzea eta egin duten lana mirestea, borroka horrek feminismoa dagoen egungo puntura eramán duelako. Gainerako partaideek kide izatearen sentimendua aipatzen dute, Iranzuk aipatzen duen moduan: *“Nik sentitzen dut pertenezia, talde pertenezia, agian ez dituzu ezagutzen bertan dauden emakumeak baina bai elkarrekin gaude zerbaitengatik eta berdinegatik, eta borrokatzen dugu”*. Gainera, pozik eta harro sentitzen dira, Joanaren kasuan pertsona berriak eta desberdinak ikusten dituzenean, eta Maricarmenen kasuan, bere seme-alabak parte hartzen ikusten dituzenean.

#### **4. ONDORIOAK**

Mi trabajo puede separarse en tres partes principales: la primera, es la contextualización de las manifestaciones del 8M tanto a nivel mundial como en Iruña y el uso de la performance en ellas. La segunda es la búsqueda de estudios que anteriormente hubieran analizado los mismos elementos de la *performance* en expresiones o manifestaciones de género. Y, por último, las entrevistas realizadas, que tenían como objetivo aportar una visión más amplia y plural que mi planteamiento inicial sobre el uso de la performance en las manifestaciones del 8M.

En primer lugar, este análisis me ha llevado a concluir que las protestas del 8 de marzo conforman un espacio de participación plural y múltiple en el que la performance forma parte de manera clave. Más allá del contenido o discurso determinado que cada año que se quiera transmitir, el modo en el que esta reivindicación se realiza tiene unas características complejas que varían según el lugar, el tiempo y los sucesos que marquen la sociedad donde se realiza la protesta.

En segundo lugar, considero que los trabajos previos que analizan los elementos performativos en las manifestaciones, en general, y en las del 8M en particular son limitados, y más si tenemos en cuenta que las características de un lugar no son comparables a otras ciudades debido al contexto que hemos mencionado previamente. Tenemos el claro ejemplo de Latinoamérica en el que tanto el uso de la performance como las características performativas utilizadas en las manifestaciones difieren completamente en las del feminismo de Iruña, ya que aquí ni se hacen performances de manera tan

numerosa ni se utiliza el cuerpo femenino como principal símbolo en las manifestaciones del Día de la Mujer Trabajadora.

En relación con esto otra línea de investigación posible sería remontarse en el tiempo a hitos ocurridos antes del asesinato de Nagore en 2008, que es el primero que se marca en este trabajo, de esta manera se podría ampliar y contrastar mediante más hitos los cambios que han sufrido las características de la performance en estas protestas. Asimismo, se podría analizar el 8M de este año 2023 y estudiar nuevos cambios que se están dando en los elementos de la performance. Otra variable que podría tenerse en cuenta de cara a futuros análisis sería entrevistar a participantes en las manifestaciones del 8 de marzo que lleven formando parte poco tiempo; integrantes de colectivos LGTBQ+, mujeres inmigrantes, hombres... Para ver cómo han vivido ellos la participación en las manifestaciones y cuáles son las características de la performance que más destacan.

Considero que este trabajo ha combinado tres elementos diferentes como son mi experiencia personal, los diferentes trabajos previos y fuentes consultadas y las opiniones e interpretaciones de las entrevistadas con las que he preguntado y con las que he conversado. Fueron ellas las que confirmaron los cuatro hitos que desde mi subjetividad había marcado como puntos clave en el feminismo navarro como los sucesos que más han influido creando variaciones de los elementos performativos de Iruña.

Además, también gracias a la información obtenida en las conversaciones, podemos concluir ciertos cambios que se reflejan mediante los elementos de la performance, cambios que yo no había tenido en cuenta en el primer planteamiento. Entre estos destaca el cambio generacional en las participantes de las manifestaciones del 8M, un cambio que hace que las demandas y los modos de protestar se realicen cada vez más de manera individual y menos de forma colectiva. Pese a que el día 8 de marzo sea una reivindicación que une lo individual en colectivo, los lemas, carteles y símbolos se convierten cada día en más personales que grupales.

La relación con las entrevistadas ha sido un punto clave a la hora de analizar los elementos performativos del 8M, pero no ha sido un proceso sencillo, ya que cuando un análisis involucra la participación de más personas se vuelve más complicado. El proceso de realizar las entrevistas tenía como objetivo mostrar una variedad de opiniones que reflejaran la complejidad y diversidad de puntos de vista e implicación que tiene el 8 de marzo. Por ello era para mí importante conseguir la colaboración de mujeres de diferentes rangos de edades y con distintos niveles de participación en el 8 de marzo. No fue fácil y presentó obstáculos el poder unir en un mismo espacio a 3 mujeres que tuvieran las características que consideraba necesarias y que además estuvieran dispuestas a ser entrevistadas. Más complejo aún si tenemos en cuenta que mi intención era poder realizar las entrevistas en euskera,

pero como se puede ver en las transcripciones de estas tan solo una de las dos pudo hacerse en euskera.

Desde el primer contacto con las 6 mujeres expliqué en qué consistía mi trabajo, pero no quise profundizar en la importancia que tenía la performance en él, porque prefería aludir a sus recuerdos y sensaciones. Por ello tampoco les facilité ninguna pregunta antes de realizar las entrevistas, ya que mi objetivo era crear un espacio en el que las ideas fueran saliendo conforme se realizaban las preguntas, se proponían temas o mediante las respuestas de las demás compañeras. Para mí lo más importante a la hora de realizar las entrevistas es que no siguieran la dinámica pregunta/respuesta, sino que entre las 4 mujeres reunidas fuéramos capaces de tener una conversación en la que se pudiera debatir, argumentar y tener opiniones y puntos de vista diversos.

Otra de las variaciones que ha tenido el planteamiento de este trabajo fue mi propia participación a la hora de conducir la entrevista. En un primer momento me había propuesto dirigir las entrevistas como un sujeto objetivo para evitar reproducir mis propias ideas como investigadora. Tras la primera me di cuenta que era difícil, dado que yo misma durante toda la conversación había propuesto temas desde mi propia experiencia y había dado mi opinión con la intención de fomentar más el diálogo y conseguir más respuestas. Por tanto, en la segunda entrevista, ya de manera consciente, participe como sujeto activo y conocedor, de esta manera fue mucho más fácil realizar la entrevista y conseguir el ambiente que había propuesto en un primer momento.

Para concluir, quiero destacar la estrecha relación que tienen el feminismo y la performance. No es posible entender las manifestaciones del 8 de marzo sin los elementos de la performance, y como demuestran las publicaciones y las mujeres entrevistadas es una herramienta útil y eficaz para hacer llegar el mensaje que los colectivos organizadores demandan el Día de la Mujer Trabajadora. No debemos entender el feminismo como un movimiento estático, el feminismo es un movimiento dinámico y con particularidades propias de cada espacio en el que se construye. Por eso, la performance y sus características son una manera eficaz de poder analizar los cambios que ha vivido el feminismo en un punto concreto. La performance es una doble vía de comunicación entre la sociedad y el feminismo, ya que es una herramienta para poder exteriorizar las reivindicaciones de la lucha feminista, y a su vez en ella se reflejan los cambios ocurridos en la sociedad y que también afectan al feminismo.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Alfonso, A. eta Cintas, V. (2013). Los discursos feministas y las acciones de mujeres en la configuración del lenguaje de la performance. *ARTE Y MOVIMIENTO*, 8, or. 21-32.

Burlatako Feministak [@burlatakofem] (2021ko martxoak 8a). 2021-03-08 Burlata [Instagram argazkia]. <https://www.instagram.com/p/CMNcv6SpPNw/>

Cebrelli, A. (2017). Escrituras, cuerpos femeninos y medios. El 8M en la Argentina. *Improntas de la comunicación y la cultura*, 5, or. 1-31.

Corral, T. (2020). ¿Por qué el 8 de marzo se celebra el Día Internacional de la Mujer? *La Información*. <https://www.lainformacion.com/asuntos-sociales/8m-marzo-celebra-dia-internacional-mujer/6549612/>

Folgueiras, P. (2016). *Técnica de recogida de información: La entrevista*. Dipòsit Digital de la Universitat de Barcelona. <http://hdl.handle.net/2445/99003>

Gutierrez, A. (2017). *Violencia performativa contra las agresiones machistas en Euskal Herria*. [Master Amaierako Lana, Granadako Unibertsitatea]. [10.30827/Digibug.48078](https://doi.org/10.30827/Digibug.48078)

Huguet, A. (2023a). El origen del 8 de marzo como día internacional de la mujer. *National Geographic*. [https://historia.nationalgeographic.com.es/a/el-origen-del-8-de-marzo-como-dia-internacional-de-la-mujer\\_12468](https://historia.nationalgeographic.com.es/a/el-origen-del-8-de-marzo-como-dia-internacional-de-la-mujer_12468)

Huguet, A. (2023b). La trágica historia de por qué el morado es el color del feminismo. *National Geographic*. [https://historia.nationalgeographic.com.es/a/morado-color-feminismo-historia\\_16449](https://historia.nationalgeographic.com.es/a/morado-color-feminismo-historia_16449)

Echeverria, A. (2014). *El movimiento feminista en navarra desde 1980 hasta la actualidad*. [Master Amaierako Lana, Nafarroko Unibertsitate Publikoa]. <https://n9.cl/6v07p>

Lanaren Nazioarteko Erakundea. (2011). El incendio en la fábrica “Triangle Shirtwaist” y el Día Internacional de la Mujer: Cien años después. *ILO ORG*. [https://www.ilo.org/global/about-the-ilo/newsroom/news/WCMS\\_152727/lang--es/index.htm](https://www.ilo.org/global/about-the-ilo/newsroom/news/WCMS_152727/lang--es/index.htm)

Lesmes, S. (2018). 1903. Primera huelga de mujeres en Pamplona. *Guía de Pamplona*. <https://guiadepamplona.org/2018/03/07/1903-primera-huelga-de-mujeres-en-pamplona/>

Manterola, J. (2019). *Miles de mujeres, en las calles de Iruñea [Argazkia]*. Naiz. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20190308/dezenas-de-miles-de-mujeres-campan-por-sus-derechos-en-irunea>

Nazio Batuen Erakundea. (2023). Día Internacional de la Mujer, 8 de marzo. *UN ORG*. <https://www.un.org/es/observances/womens-day/background>

Ondacero.es. (2019). Día internacional de la mujer, ¿Cuál es el origen del 8M y por qué se celebra hoy? *Ondacero.es*. <https://n9.cl/qrg1r>

Orellana, N. eta Chamorro, C. (2021). El cuerpo y el lienzo. Las performances de las protestas feministas y laborales en Santiago. *Comunicación y Medios*, 43, or. 91-103. <https://doi.org/10.5354/0719-1529.2021.58478>

M8a performance-aren ikuspegitik: Iruñeko kasua

Ortiz, K. (2021). Performance feminista “Un violador en tu camino”. El cuerpo como territorio de resistencia y subversiva resignificación. *Encartes*, 7, or. 265-291.

Pando, M. J. eta Aurrekoetxea, M. (2020). Prácticas discursivas feministas: análisis de los lemas de la manifestación del 8M en Bilbao. *Feminismo/s*, 36, or. 205-229. <https://doi.org/10.14198/fem.2020.36.09>

Pérez, M. A. (2002). Movimiento feminista en España. *Géneros*, 9, or. 5-14.

Pinta, M. F. (2005). El género en escena. Performance y feminismo. *Telondefondo*, 2, or. 1-14.

Rodriguez, Z. (2015). Gatazka, normalizazioa eta feminismoa. *Jakin*, 209, or. 83- 99.

Tate Museum. (2023). Performance art. *Tate ORG UK*. <https://www.tate.org.uk/art/art-terms/p/performance-art>

## ERANSKINAK

### ELKARRIZKETA TRANSKRIPZIOA

#### LEHENGO ELKARRIZKETA: 2023KO APIRILAREN 28AN.

**Partaideak:** Iranzu Guelbenzu, Lourdes Zabalza, Soco Percz eta Maialen Fernández (Hemendik aurrera I, L, S, M).

-M: Nahi baduzue hasi ahal gara izen ronda batekin eta horrela badituzte ni gordeta. Esan ahal dugu adibidez, izena, adina, lanbidea... nahi duzuen.

- L: Oso ongi.

-M: Hasiko naiz ni nahi baduzue. Ni Maialen naiz, 21 urte ditut eta Historia eta Ondareko irakaslea naiz. Hemen zaudete nire lanaren elkarrizketak egiteko.

-L: Oso ongi, ba ni Lourdes naiz, Lourdes Zabalza eta 57 urte ditut eta haur hezkuntzako irakaslea naiz.

-S: Ni Soco naiz, 62 urte ditut eta aida jubilatuta nago.

- I: Ni Iranzu Guelbenzu naiz, Historia eta Ondareko ikaslea eta 22 urte ditu.

-M: Ondo, ba hemen zaudete, adin desberdineko emakumeak garelako eta Martxoak 8ko manifestazioetara joaten zaretela suposatzen delako. Horrela da? Parte hartzen duzue normalean? Agian ez urtero, baina modu orokorrean?

- I, S eta L: Bai.

-M: Bale, ba hau jakinda azalduko dizuet pixka bat zeri buruz doan nire lana, sarrera moduan. Ni ikertzen ari naiz martxoak 8ko manifestazioen garapena baina ez hainbeste adar politiko edo mezu politikoa baizik eta bertan ematen den performance-a. Badakizue zer den performance-a?

-L: Bai, baina kasu honetan ez dakit ondo nola lotu nahi duzun.

